

AUZOLANA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK

2025KO DEIALDIA

OINARRIAK

1. Helburua

Oinarri hauek arautzen dute auzo-elkarteei eta guraso-elkarteei 2025rako dirulaguntzak eta laguntza publikoak emateko prozedura orokorra, norgehiagoka-arabidearen bidez. Hernaniko Udaleko Partaidetza Sailari dagokio prozedura hori kudeatzea.

Oinarri hauek udalak indarrean duen Dirulaguntzak Emateko Araudiaren 7. artikuluan xedatutakoa garatzeko ematen dira.

Deialdi honen helburua auzo-lana edota lan komunitarioa sustatzea da (Auzolan).

2. Aurrekontu eta programak

Deialdi honen helburuak lortzeko 15.000 euroko diru kopurua dago 2025ko ekitaldirako; aurrekontuaren ondorengo partida honetan: 2110.481.01.924.00 "Auzolan programa".

3. Onuradunak

Dirulaguntza hauek eskatzeko aukera izango dute legez osatu eta Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta dauden elkarteek. Horrez gain, beren egoitza eta jarduera esparrua Hernanin izan beharko dute.

4. Bazterketak

Deialdi honetatik kanpo honako hauek geratzen dira:

4.1. Dirulaguntzetarako Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra) 13.2 eta 3 artikuluetan aurreikusitako kasuetako jarduerak.

4.2. Direnagatik edo duten helburuagatik Partaidetzako Sailaren jarduerekin inongo loturarik ez duten jarduerak

4.3. Edozein motatako zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituzten elkarte edo erakundeek aurkeztutako eskabideak, baita Udalarekin edota Gizarte Segurantzarekin eguneratuta ez daudenak ere.

Betebeharrak egunean dituzten jakiteko egiaztapena egingo da, ofizioz.

4.4. Ez dira aintzat hartuko aurreko edizioetan jasotako dirulaguntza justifikatzeko memoria entregatzeko dituzten jarduerak edo programak.

4.5. Ez dira aintzat hartuko beren jarduera publikoetan indarrean dagoen legea (jaiotza, arraza, sexu, erlijio iritziagatik diskriminazioaren debekua) betetzen ez duten elkarten eskabideak.

4.6. Onuradunek, indarrean dagoen lege araudia bete beharko dute, besteak beste, Emakume eta Gizonezkoen berdintasunerako 4/2005 legea.

5. Eskabideak

Dirulaguntza eskatzeko eskari ofizialak erabiliko dira, behar bezala beteak eta sinatuak. Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera.

Leku hauetan eska daitezke:

1. **hhz- Herriarren harrera zerbitzuan:** Udaletxeko beheko solairuan astelehenetik ostiralera 8:30 – 13:30 ordutegian eta astearte-ostegunetan arratsaldez ere bai 13:30 – 18:30 ordutegian (Hitzordua eskatzea beharrezkoa da).

Interneten bidez: www.hernani.eus helbidean, pasahitza erabilia.

Eskaeraren ale bat erakunde eskatzaileak jasoko du, eta bestea, Partaidetzako Sailera bideratuko dena, Sarrera erregistroan.

Dirulaguntza hauek jaso ahal izateko, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte eskatzaileek:

- Dirulaguntza-eskabide normalizatua, bete eta sinatua.
- Dirulaguntza xede izango den jardueraren deskribapena, baita aurrekontuarena ere (1. eranskina).
- Identifikazio Fiskaleko kodearen dokumentuaren fotokopia (IFK).
- Zerga bidezko betebeharrak, gizarte segurantzarekikoak eta BEZ araubidea egunean edukitzearen aitortpena (2. Eranskina).
- Dirulaguntza eskatzen duen erakundearen estatutuak eta curriculumak: kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak, etab. (sortu zenetik aldaketak izanez gero).
- Eusko Jaurlaritzako Elkartea eta Erakundearen Erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua (2025 urtekoa). Aurreko urteetan diru-laguntza jaso duten elkarteek Eusko Jaurlaritzan izena emanda jarraitzen dutenaren aitortpena.

Interesaturen batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentuetako batzuk Hernaniko Udalaren esku daudela eta Udalak hori hala dela baldin badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Edonola ere, beharrezkoa den jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko.

Baldin eta eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, edo oinarri hauetako baldintzak beteko ez balitu, 10 lan-eguneko epean forma-akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko eskatuko zaio. Gainera, ohartaraziko zaio hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela, eta,

horrenbestez, eskaera besterik gabe artxibatu egingo dela, gaur egungo arauak agintzen duenez.

6. Epeak

Eskaerak aurkezteko hogeita hamar egun balioduneko epea izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Ezarritako epeak nahitaez beteko dira, eta ez da salbuespenik egingo.

7. Diruz lagunduko diren gastuak

Dirulaguntza gastu hauetarako izango dira:

- Auzolan egitasmoak garatzeko behar diren baliabide materialak hornitzeko gastuak, jarduerarekin zerikusi zuzena dutenak.
- Auzolanean sortutako hondakinak kudeatzetik eratorritako gastuak, betiere hondakin bakoitza egoki kudeatu dela justifikatzen bada. Horretarako, dagokion agiri ofiziala aurkeztu beharko da.
- Auzolan proposamenarekin erlazionatutako ikerketak edo lan teknikoak egitearekin eragindako gastuak. Udalak izendatuko du ikerketa hauen errealizazioa egiteko teknikaria. Ez dira diruz lagunduko udal teknikariaren baimenik gabe egiten diren kanpo kontratazioen gastuak.
- Auzolana egiten dutenen hamaiketakoa (gehienez 10€ pertsona bakoitzeko).

Eskulan tailerrak (gabonetako apaingarriak, Gau iluneko eskenografiak...) diruz lagunduko dira, beti ere, auzolanean egiten badira, onura komunitarioa bilatzen badute eta jarduera egiteko beste dirulaguntzarik jaso ez den bitartean. Ez dira onartuko auzoko festen antolaketari lotutako tailerrak.

Lorezaintzako lanak ez dira diruz lagunduko, hauen mantenurako sortzen diren arazoak direla eta.

Gurasoen elkarleen kasuan, ikastetxea izango da jardun-eremua. Modu komunitarioan egiten diren jarduerak diruz lagunduko dira, betiere ikastetxearen baimena lortzen bada.

Ikastetxearen baimena idatziz eta zuzendaritzaren sinadurarekin aurkeztuko da.

8. Eskabideak ebaluatzeko irizpideak

Aurkeztutako eskabideak Herritarrentzat Zerbitzuak Batzordeak tramitatuko ditu, bai aztertu eta baloratu ere.

Erabakiak hartzeko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da, baina aurrez Herritarrentzako Zerbitzuak Batzordeak bere ebazpena emango du.

Hauek izango dira irizpideak:

- Auzolanean parte hartzen dutenen partaidetza; kontuan hartuz, sexua, adina, jatorria, etab.
- Auzoan talde antolatutak badaude, hauekin elkarlanean egitea auzolan proiektua.
- Auzoan, auzokideen artean edota ikastetxean izango duen eragina

Eskabide kopuruak zenbateko handiagoa ematea eskatzen badu aurrekontuko zenbatekoa eskatzaileen artean banatuko da eta jaso beharreko zenbateko gutxitua banatu egingo da.

9. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak gehituta).

Eskatzaileak ebazpenaren berri jasoko du idatziz eta arrazoitua betiere. Jasotzekoak diren kasuetan honakoak zehaztuko dira: dirulaguntzaren kopurua, ordainketa modua, zurtzeko modua eta oinarri hauetan zehazten diren beste hainbat baldintza eta betebeharrak.

Aurkeztu diren proposamen zuriketak Alkate dekretuz ebatziko dira.

10. Ordainketa:

Dirulaguntzaren % 80ko kopurua dirulaguntza ematea onartzen denean ordainduko da. Gainontzeko % 20a auzolan gastuen zuriketa egin ondoren ordainduko da.

Gastuen zuriketa egitasmoa bukatu eta hilabeteko epean (beranduenez 2026eko urtarrilaren 20an) aurkeztu beharko da.

Zuriketa egiteko ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

1. Diruz lagundu den programa edo jardueraren memoria xehatua.
2. Sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa. Egindako gastuen agiriak (faktura edo baliokideak); "gastu oharrak" ez dira onartuko. Fakturek gutxienez honako datu hauek jaso beharko dituzte:
 - Zerbitzua ematen duenaren identifikazioa (izena, helbidea, IFZ/NAN).
 - Zerbitzua hartzen duenaren identifikazioa (izena, helbidea, IFZ/NAN).
 - Zerbitzuaren gaiaren identifikazioa.
 - Zerbitzua egin zeneko eguna.
 - Guztizko kopurua eta BEZa.
 - Dokumentazio grafikoa (argazkiak, kartelak).

11. Publizitatea

Diruz lagundutako jarduerari publizitatea egiten zaienean, jarduera bultzatzen duten elkarteek Hernaniko Udaleko laguntza jaso dutela adierazi beharko du, irudi korporatiboaren arauen arabera, eta Hernaniko Udalak onartuta dituen hizkuntza irizpideak kontuan hartuta:

Herritar multzo euskaldunari zuzendutako idatzi, publizitate, iragarki ohar eta gainerakoak ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz izango dira.

Beste hizkuntza erabili behar denean euskarazko mezua lehenetsiko da.

Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko.

Horretaz gain, egitasmoarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkuntza ez irudi sexistarik ere.

12. Ebazpen-epea eta berri ematea

Ebazpenak eman eta jakinarazteko epea hilabetekoa izango da gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu guztietan elkarteari ebazpenaren berri emango zaio, dirulaguntza jaso ala ez.

Emandako dirulaguntzan berri Udaleko iragarki taulan emango da eta ebazpenaren laburpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN. Nahikoa izango da Udaleko iragarki taulan jartzea, emandako dirulaguntza bakoitza 3.000 euro baino gutxiagokoa denean.

13. Ez-betetzea

Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada dirulaguntza berraztertu egingo da eta, hala badagokio, baliogabetu edo emandako diru kopurua itzuli egin beharko da, dirulaguntzak emateko udal araudiaren 17. artikulua aurreikusitako eran.

Dirulaguntzak itzultzeko prozesua ofizioz hasiko da, laguntza edo dirulaguntza eman zuen organoaren eskariz, eta hala badagokio, emandako dirulaguntza baliogabetzea, murriztea edo itzultzea erabaki ahal izango da, behar bezala arrazoituta. Prozeduraren izapideetan interesatuaren entzute eskubidea bermatuko da.

38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta Udal Dirulaguntza Araudiak xedatu moduan, dirulaguntza itzultzea erabakitzen bada, emandako diru kopurua eta hari dagozkion berandutze-interesak itzuliko dira.

Dirulaguntza deialdia Udalaren webgunean (www.hernani.eus) argitaratuko da, eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan (BDNS) erregistratuko da; deialdiaren laburpena, berriz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

14. Araubidea

Deialdi honetan xedatu gabeko guztia Hernaniko Udalaren Dirulaguntzak Emateko Araudiaren arabera arautuko da, eta dirulaguntzen inguruko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera.

Araudia urtero berrikusiko da.

DOKUMENTAZIOA

Honakoa aurkeztu beharko da-(X jar ezazu)

- ☐ Eskabide orria betea eta sinatua.
- ☐ Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.

- Erakunde eskatzailearen estatutuak, bazkide kopurua, kideak, kuotak...
- Auzolanean egingo den egitasmoaren norakoak eta aurrekontua (1. eranskina).
- Zerga-bidezko betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta BEZ-araubidea egunean edukitzearen aitortzea. (2. eranskina)